

PRENTSA OHARRA: 2020.02.24

## Kimuak 2019 aukeraketako film laburren lehen emanaldi publikoak

Datozen osteguna 27an eta larunbata 29an, Kimuak 2019 aukeraketaren publikoari irekitako lehen emanaldiak egingo dira Donostian eta Bilbon, hurrenez hurren.

Etxepare Euskal Institutuak Euskadiko Fimategia Fundazioaren laguntzarekin antolatutako Kimuak programak, euskal film laburren sustapena eta banaketa du helburu. Azkeneko katalogo honetan jasotako lanak honakoak dira: Josu Venero eta Jesus Mari Lazkanoren ARTIKO, Raúl de la Fuenteren EL INFIERNO, Jesús María Palaciosen LABO, Ion de Sosa eta Chema García Ibarraren LEYENDA DORADA, Izibene Oñederraren LURSAGUAK, Aitor Arregi eta Jose Mari Goenagaren MATEOREN AMA eta Ainhoa Gutiérrez del Pozoren MEDVEDEK.

Film labor sorta honek pasa den Donostiako Zinemaldian hasi zuen ibilbidea, eta orduz geroztik mundu osoko 170 jaialditan hartu du parte. ZINEBI, Berlinale, BAFICI, Palm Springs, SEMINCI, Hong Kong, Bogoshorts, Black Canvas eta Warsaw bezalako zinemaldietan erakutsi ostean, publiko zabalari zuzendutako lehen proiektzioak izango dira aste honetakoak, eta egileak bertan izango dira beraien lanak aurkezteko.

Ostegunean Donostiako Tabakaleran egingo da proiektzioa, arratsaldeko 19:00etan, eta larunbatean Bilboko Arte Ederren Museoan, ordu berean. Sarrerak salgai daude jada bi zentroetako webgune eta leihatilatan.

**Info+**

Mikel Lasa  
Etxepare Euskal Institutua  
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1  
Donostia / San Sebastián  
T: 943 023 400 / M: 688 670 217  
[komunikazioa@etxepare.eus](mailto:komunikazioa@etxepare.eus)  
[www.etxepare.eus](http://www.etxepare.eus)